

PIRRITX,
PORROTX
eta MARIMOTOTS



Heriotzaren gaia lantzeko proposamena

AMAREN INTXAURRAK

Heriotzaren gaia lantzeko proposamena

NONDIK GATOZ...

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldea heriotzaren gaia lantzen ari da.

Familia eredu anitzez, kultura aniztasunaz, hezkidetzaz, bizikidetzaz, inklusioaz, naturaz, gaixotasunaz, ... irri, kantu, dantza eta jolas, bizitzaz aritu dira ibilbide luzean sudur-gorriak, bizitzaren parte baitira horiek guztiak, egunero partekatzen ditugunak eta eragiten digutenak. Oraingoan, aldiz, bizitzaren parte den heriotzaz jardun asmo dute. Arrazoia argia da, heriotza ere presente dago gure egunerokotasunean.

Antzezte / ikusle dikotomia hausten saiatu dira pailazoak sorreratik bertatik. Antzezlanak amaitu, oholtzatik jaitsi eta muxu, besarkada, hitz goxo edota argazki forman bertaratutakoen etxeetara iritsi dira, lagunak lagun bilakatu. Eta lagunak artean pozak bakarrik ez, tristurak ere partekatzen dira, goxagoak direlako beti horrela. Sortutako harreman berezi bezain estu horietan eragina izan du, baita ere, haurren beharrak eta eskubideak bermatze aldera lanean ari diren elkarte ezberdinekin duten *“eman-hartuak”*.

Tristurak, pozak bezala, askotarikoak izan daitezke eta heriotza horietako bat da. Haurren aiton amonak hiltzen dira, baita gurasoak ere. Senideak, lagunak, herriko ezagunak, traturik izan gabe gure paisaia emozionalaren parte sentitzen ditugunak... Haurrak ere hiltzen dira tarteka, eta pailazoen ere negar egin dute halakoetan. Senide eta lagunengandik gertu egoten saiatu dira eta haien sudur gorrien maitasuna eta berotasuna eskaini eta partekatu dute, agur esatean eta doluan galera hori bizi duten pertsonen beharrak eta denborak zainduz eta errespetatuz.

NORA GOAZ...

Gure gizartean, ohikoak izan dira zuri beltzeko agurrak. Aitzitik, beste era batekoak, bizi izan garen modukoak izan daitezke. Pailazoen agur ezberdinetan parte hartu dute senide eta lagunekin batera: batzuetan globoak askatu dituzte airera, etxe luzez inguratutako porlaneko plazatxo batetan, haurraren arratsalderoko jolaslekua izandakoan. Eskolatan ere izan dira, hezkuntza komunitatea osatzen duten partaideekin marrazkiak, bizipenak eta sentimenduak partekatuz. Herriko parke kuttunean arbola landatu izan dute bizilagunekin batera. Itsasertzeko txoko kuttunean esan diote agur lagunari, baita mendi puntan ere... Norberaren izaerak, zaletasunak eta gogoak kontuan hartuz ospatu dituzte agurrak, askotan kantu eta dantza artean, eta beti muxuz, besarkadaz eta hitz goxoz lagunduta.

Covid 19a geure bizitzetara iritsi den honetan askok eta askok bakardadean bizi izan dute familia arteko edo lagun baten heriotza. Inoiz baino gehiago agerian geratu da heriotzaren aurreko eta ondorengo momentuetan duintasunez laguntzeak eta agurtzeak berebiziko garrantzia dutela. Hutsunea sentitu dugu herri bezala, eta hutsune hau nabarmena da egunerokotasunean ere. Askotan ez baitakigu heriotzaren errealitatea nola ulertu, onartu, partekatu...

Bizitzaren parte dira jaiotza eta heriotza, biak. Jaiotzaren inguruko ezagutza zabaltzen joan den moduan, heriotzaren inguruko ezagutza ere zabaltzea egin behar da gizartean, bizi osotasunean bizi ahal izateko.

Gai honi Katxiporretak Hil Argi Elkartarekin eta Hik Hasi pedagogia taldeko lagunekin elkarlanean bere ekarpen xumea eskaini nahi dio, apaltasunetik. Proposamena orokorra da, tokian tokira eta unean uneko egoerara egokitu behar dena.

HELBURU OROKORRA

AMAREN INTXAURRAK proiektuaren helburua da heriotzaren gaia haur eta gaztetxoekin, eta haiekin batera, familiarekin ere lantzea. Gai honek tabu izaten jarraitzen du gure artean, nahiz eta gu denok ukitzen gaituen. Denak jaiotzen gara eta denak hiltzen gara. Bizitzarekin batera doa heriotza eta natural den hori modu naturalean sentitu, pentsatu eta barneratu behar genuke pertsona guztiok. Proiektu honen bidez heriotzaren errealitatearen aurrean pertsonon ahalduntzea dugu helburu, gai honi gu guztiok osatzen dugun komunitatetik erantzunez, familiarik, lagun artetik, eskolatik, auzotik, herritik,...

JARDUERA ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

AMAREN INTXAURRAK izenburu duen ipuina eta diskoa gauzatu ditu pailazo taldeak. Ipuina Julio Soto bertsolariarekin eta Maite Mutuberria ilustratzailearekin batera landu dute. Diskoak berriz, aurrez argitaratuak dauden 15 abesti jasotzen ditu. Xabier Zabalak sortutako musikarekin eta hainbat sortzailek egindako hitzekin dago osatuta.

Bi euskarri hauetan oinarrituta ikuskizuna prestatu dute, herriz herri eta irriz irri, jolastuz, kantatuz eta dantza eginez taularatuko dutena. Ipuina ikus entzunezko ere bihurtu dute <https://www.youtube.com/watch?v=0QOBKihJgbc> . Bi ideia nagusi helarazi nahi izan dituzte:

- 1- Jaio bezala hil egiten gara eta gure gorputzak itzaltzen dira, baina geure bizipenen bidez geure baloreen transmisioa gauzatzen da, belaunaldiz belaunaldi. Hildakoen bizipenak eta baloreak partekatzea garrantzitsua izan daiteke doluan laguntzeko. Galerak negarra eragiten digun moduan, denborarekin bizipenekin eta baloreekin gogoratzeak irribarra margotzen baitigu aurpegian.
- 2- Jaiotzean naturatik gatoz eta hiltzean naturarekin egingo dugu bat, azken finean natura gara. Geure burua zaindu nahi badugu eta osasuntsu bizi, natura eta bizitoki dugun mundua zaindu behar ditugu.

Idea hauek lantzerakoan lagungarri izan daiteke zuhaitza landatzea, hain zuzen ere ipuinean eta ikuskizunean gauzatzen den ekimena. Zuhaitz hau zainduko dugu denon artean, urtetik urtera haziz joango da eta arbolaren kasuan iritsiko da fruituak ematera ere. Urtero egingo diote bisita haurrek, zuhaitza besarkatuko dute, haren inguruan borobilean eseri eta tertulian aritu, kantu eta dantza egin, jolastu, ... haren fruituak jaso eta hauek dastatuz, urtean zehar hil zaizkien senide eta lagunengandik hitz egiteko aitzakia izango dute. Utzi gaituztenek zein hutsune utzi, baina batez ere ze balore transmititu dizkiguten partekatuko dugu horrela. Urtean behin, data jakin batean, fruituak jasotzeko garaian elkartzear eta gaia lantzeaz gain, urtean zehar gertuko norbait hiltzen zaigun aldiro burutu genezake ekintza hori. Hau osatu daiteke marrazkiak eta idazlanak eginez. Kontuan izango da zuhaitza landatzerakoan lekuaren eta garaiaren egokitasuna (gerezionarioak, esaterako, uda hasieran ematen du fruitua, intxaurreak, aldiz, udazkenean...)

“Urteak betetzea bezain inportantea da abenturak bizitzea”. Hori ikasi dute pailazoen haien ibilbidean, eta bizitza denboraz motza izanagatik ere, abenturaz aberatsa izan daitekeela. Horregatik, joan zaizkigun haurrengandik jasotako bizipenek balorez eta kolorez betetzen gaituzte hainbeste.

Proiektuaren helburua da ikastetxeko hezkuntza curriculumean heriotzaren gaia txertatzea eta eskola komunitatea osatzen dugun guztiok partekatzea. Proiektua bertan gelditzeko etorri da. Heriotzaren gaia gure bizitzaren parte da eta urtero hiltzen zaigu gertuko norbait. Behar bezala laguntzea, agurtzea eta oroitzea oso garrantzitsua da, eta proiektu honen bidez hori ahalbidetu asmo dute sudurgorriek.

ELKARLANEAN

Covid 19 izurrite garaian Hil Argi Elkarteak bere jaiotzaren berri eman digu. <https://hilargi.eus/elkartea/>

Hil Argi Elkarteak duen ezagutzak, Katxiporreta kooperatibak <https://www.katxiporreta.eus/> haurren agurretan duen esperientziak eta bizipen hauetatik metatutako jakintzak, baita Hik Hasi proiektu pedagogikoak <http://www.hikhasi.eus/> dituen baliabideek bat egin dute norabide berean.

Nabarmentzekoa da Julio Soto Ezkurdia bertsolariak eta Maite Mutuberria ilustratzaileak sorkuntza prozesuan pailazoekin batera izan duten parte hartzea.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek une oro kontuan izan dituzte bidean hil zaizkien lagun txiki eta handiak. Haiengandik jasotako bizipenak zein balioak eta haien senide eta lagunekin partekatutakoak bilduta daude lanketa honetan, eskerrik asko bihotz bihotzez.

Hurrengo lerroetan proposamen hau irakurri ostean pailazoen lagun batek helarazi diena partekatu nahi izan dute zuekin:

“Zelako poza holako proiektuak!

Tabua aipatzen duzue lerro hauetan eta zera etorri zait burura: Pirritxek, Porrotxek eta Mari mototsek beti esan digute "maitasuna bizitzeko mila era daudela". Iruditzen zait heriotzak aldarrikapen berdina behar duela, "heriotza bizitzeko mila era" daudela ere.

Kontua da, duela pare bat egun, lehenengoz sei urteren eta prozesu luze baten ondoren, zera esatera ausartu naizela lagun bati: "pozik nago bikotekidearen heriotza bizi izan dudalako". Bihotzez diot hau, posible da esaldi berean "heriotza eta pozik" hitzak uztartzea. Bizitzan asko eman zidan (bikote zoragarria izan nuen benetan!) eta bere heriotzarekin ere jasotzen jarraitu dut, sekulako altxorra jaso ere. Pertsona hobea naiz nirekin eta ingurukoekin, gaixotasunean laguntzeko aukera paregabeak minari aurrez aurre begiratzen irakatsi zidan eta harrezkero, lasaitasunez begiratzen diet minari naiz tristurari. Lanerako eta beste hainbat gauzetan ekiteko gaitasun izugarria deskubritu dut nire barruan, nire ikasleekin irakasle hobea naiz orain dudarik gabe, sentiberagoa eta ausartagoa ere, banao aurrera seme zoragarri birekin, etxea, lana.. mendian korrika nabilenean hostoak laztantzen ikusi dut nire burua, POZIK eta bizirik nagoelako! ...gauza zoragarrien zerrenda luzea da...

Heriotza bere galeratik soilik ikus lezake batzuk, eta ulertu eta errespetatzen dut, zelan ez!

Baina nik galeran gauza ederrak ere ikusten ditut eta pozik nagoela aldarrikatzeko beharra sentitzen dut! Beraz mila pila eskerrik asko bizipoza eta heriotza bat egiteagatik!”

Maialen Basterra

Katxiporreta kooperatiba Elkartea

www.katxiporreta.eus/ / 943368404 / 616432169 /
pailazoak@katxiporreta.eus